

## « Artxiboa eta sorkuntza » kolokioa Webmintegia 2021eko ekainaren 17a eta 18a

Euskal kultur erakundearen eta ARI-CNRSren ekimenez, euskal Etnopoloak urteko kolokioa antolatuko du, 2021eko ekainaren 17an eta 18an. *Artxiboa eta sorkuntza* izanen du gaia. Hala, artxiboa sorkuntza artistikoko dinamikendako baliabide bilakatzeko xedea duten hainbat ekimen aztertuko ditugu. Baina, lehenik, artxiboen sortzea denon memoriaren sortzeko ekintza gisa planteatuko dugu.

Defentsa sekretuak babestu dokumentuak sailkapen berezitik kentzearen gaia eztabaida publikora berriz ateratzen ari da. 2021eko urtarrilaren 20an, Benjamin Storak Frantziako presidenteari *Memoria eta Egia* txostena eman zion. Bertan, estatuburuari Frantziaren eta Aljeriaren arteko memoria komunaren inguruko ekimenen sortzea aholkatzen dio, « memoriaren bakearazteko eta historiari begietara so egiteko »<sup>1</sup>. Martxoaren 9an, Emmanuel Macronek artxiboen zerbitzuei « Frantziako defentsa sekretuaren peko dokumentuak sailkapen berezitik kentzeko » baimena eman zien<sup>2</sup>. Martxoaren 21ean, Ruandan 1990etik 1994ra iragan tutsien genozidioari buruzko Frantziako artxiboei buruzko ikerketa Batzordeak zuen, Vincent Duclert buru (EHESS), gai horri buruzko txosten bat aurkeztu. Txosten hori erabaki bati esker idatzi ahal izan zen: 2019an, zegokien administrazio guzien mendeko artxibo-funtsa guzien kontsultatzea erraztea erabakia izan zen<sup>3</sup>. Beste txosten batzuk ere bidean dira; adibidez, Frantziaren menpeko Polinesian 1966 eta 1996 artean egin entsegu nuklearrei buruzkoa<sup>4</sup>. Estatuko sekretuen babesaren eta historia-ikerketaren arteko dialektika gizarte ororen memoria-eragiketa guzietan present dago.

Hamaika kasutan, artxiboen sortzeak eta jendeen eskura emateak gizarte-erronkak azalera dituzte. Espainiako estatuan, artxibo batzuen zabaltzeari esker, « 36ko gerlan » mozki hil jendeen gorpuak eta hobi komunak lurpetik atera ahal izan ziren. Desmarta horrek eztabaida politikoa piztu zuen, eta familia-historia, komunitate arteko harremanak eta Estatuarekiko lotura birplanteatu ziren, gerla zibilaren eta diktadura frankistaren memoriaren oinarria kontuan hartuz<sup>5</sup>.

Arrunt beste arlo batean, 2020an Vatikanoko artxiboak zabaltzarekin, Marie Cosnay idazleak Finaly haurren gaiari buruz ikertu ahal izan zuen: bi haur judu horien burasoak hil aitzin preso eman zituztelarik, haurrak erakunde katoliko bati eman zizkioten; ondotik, erresistentzia katolikoko talde batek bahitu zituen, eta Hego Euskal Herrira eraman. Haurrek 1953 arte itxoin behar izan zuten beren senideen artera itzultzeko, Frantzia, Espainia frankista, Israel eta Vatikanoa barne zituen gatazka diplomatikoak iragan baitziren eta nazioartean kanpaina bat antolatu baitzen. Eleberri-idazketaren bitartez, Marie Cosnayk historia-egia berreraiki du. Liburuan egoera xeheki deskribatzen duenez, Pio XII.ak Holokaustoari buruz izan zuen jarrera eta Baionako Etchegaray apezak, gero Marseillako artzapezpiku eta Kardinal izanzen zenak, izan zuen eginkizuna ere argitzen dizkigu.

<sup>1</sup> <https://www.vie-publique.fr/rapport/278186-rapport-stora-memoire-sur-la-colonisation-et-la-guerre-dalgerie>

<sup>2</sup> <https://www.elysee.fr/emmanuel-macron/2021/03/09/le-president-a-entendu-les-demandes-de-la-communaute-universitaire-pour-que-soit-facilite-lacces-aux-archives-classifiees-de-plus-de-cinquante-ans>

<sup>3</sup> [https://www.vie-publique.fr/sites/default/files/rapport/pdf/279186\\_0.pdf](https://www.vie-publique.fr/sites/default/files/rapport/pdf/279186_0.pdf)

<sup>4</sup> [https://beta.documentcloud.org/documents/20509073-rapport-sur-les-consequences-sanitaires-des-essais-nucleaires-en-polynesie\\_fev2020](https://beta.documentcloud.org/documents/20509073-rapport-sur-les-consequences-sanitaires-des-essais-nucleaires-en-polynesie_fev2020)

<sup>5</sup> Aitzpea Leizaola, « La mémoire de la guerre civile espagnole : le poids du silence », Ethnologie française, Paris, PUF, 2007, 3 Vol. 37 :483-491

## Guda Nagusiko euskal presoen Alemaniako memoria

Artxiboen inguruko memoria-erronka horiek agerian uzten dute artxiboen eta elkarbizitzaren eraikitze beharraren arteko lotura zinez hertsia dela. Artxiboarekiko lotura gure gizarte-memorien erronka da. Lotura hori bi eguneko kolokioaren muinean izanen dugu. Ekitaldiaren oinarrian, Ipar Euskal Herriko familia anitz hunkiturik ere gutik ezagutzen duten corpus historikoa izanen dugu: Lehen Mundu Gerlan grabatu euskal presoek kantuen artxiboak, orain Berlineko Phonogramm-Archiv bilduman kontserbatuak direnak.

Berliner Phonogramm-Archiv Carl Stumpf psikologoak sortu zuen 1900an. Bildumak 145 000 fonograma biltzen ditu, eta munduko soinu-artxiboen funts garrantzitsuenetakoa da. Lehen Mundu Gerlan, bere lankideek 29 preso-kanpamendutan grabaketak egin zituzten. Grabatu zituzten presoek artean, hamar soldadu euskaldun ziren; besteak beste, Antoine eta Jean-Baptiste Suhas, Joseph Jaureguiber eta Pierre Ascarateil. 1915 eta 1918 artean, Carl Stumpf gidaritzapean, Georg Schünemann musikologoak (1884-1945) eta Hermann Urtel euskalariak (1873-1926) haien kantuak grabatu zituzten. Kantu bilduma horrek osatzen du Phonogramm-Archiv de Berlinen euskal artxibo-funtsa.

Jardunaldietako gomit berezia Lars Christian Koch irakaslea izanen dugu. Berlineko Phonogramm-Archiveko zuzendaria eta Humboldt Forumeko Berlineko museo nazionala bildumen zuzendaria da<sup>6</sup>, eta gutik ezagutzen duten funts hori aurkeztuko digu.

## Artxiboa sorkuntza gisa

Kolokio horren izena « Artxiboa eta sorkuntza » da. Elkarrekin, dokumentuei artxibo izaeraren ematea sorkuntza-ekintza gisa eta sorkuntza artistikorako akuilu gisa artxibora jotzea galdezkatzea du xede; hots, artxiboaren sortzea eta artxibotik sortzea.

Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, artxiboa dokumentuen bilduma da, baita bilduma hori atxikitzen den lekua ere. Artxibo estatusa ukaiteak erran nahi du, egun batean, elementu hori artxibotzat ekarria izan dela. Artxibotzat ekarria izateak suposatzen du elementua bilaketa, bereizketa, hartze eta kontserbatze eragiketaren fruitua dela, eta kontsultatzeko eta aztertzeko atxikia izan dela. Historialariak ikertu aitzin, artxiboa sortu behar da, beraz; eta artxiboen sortzea praktika berezia da: artxibatzen jakin behar da, arrazoiak eman behar dira, baita ondorioak neurtu ere. Artxibatzeak badu zerikusirik historiarekin, biak jestu berarekin hasten baitira: « aparte ematea, biltzea eta, beraz, ordu arte sakabanatuak ziren elementuak 'dokumentu' bilakaraztea »<sup>7</sup>.

Artxibotzat ekartzearen egile-lan hori da kolokio honetan aztertu nahi duguna, hasteko: artxiboaren egitea, sorkuntza-ekintza gisa.

## Sorkuntza artistikoa eta artxiboa

Bigarrenik, elkarrenganako mugimendua jorratuko dugu: idazle, ikusizko artista, musikari, koreografo, dokumental egile eta zuzendariak nola berenganatzen dituzte artxiboak, eta sorkuntzaren akuilu bilakatzen? Zer solas sortzen da artxibozainen, ikerlarien, artisten eta gizartearen artean? Artistek artxibo-protokoloak inarrotzen ote dituzte? Metodologiaren arteko talkarik gertatzen ote da? Ekoizpenetan gaizki ulertzerik sortzen ote da? Zeharkako interpretazio-testuinguruek antinomiarik eragiten ote dute? Artxiboen memoria nola sartzen da gure gizarte-munduetan, arteak bereganatzen

<sup>6</sup> <https://www.eke.eus/fr/ethnopole-basque/themes-de-recherche/oralite/consultation-et-etude-darchives-audiovisuelles-et-sonores/prisonniers-basques-de-la-guerre-de-1914-1918>

<sup>7</sup> Michel de Certeau, L'écriture de l'histoire, Editions Gallimard, 1975 : 84

duelarik? Eta zer ondorio du inplementazio-lan horrek gure historiaren, politikaren eta elkarbizitzaren irudikapenetan?

Ondare-erakunde anitzek artearen eta artxiboen arteko harreman hori sustatzen dute. Artistak bildumen ikertzera gomitutzen dituzte, beren sorkuntzen elikatzeko. Erakundeen ikuspuntutik, desmartzaren xedea artxiboen agerian ematea eta bitartekaritzen sortzea da; gizartearen ikuspegitik, aldiz, erronak arrunt bestelakoak dira. Arteka hori dugu aztertuko kolokioaren bigarren partean. Adibidez, NSDOS karisma handiko musika elektronikoko ekoizleak Elearen eta Jestuen Museoak 1931ko Kolonien Erakusketa kari sortu musika-antologian oinarritu musika sortu zuen. Gisa berean, Parisko Schola Cantorum-ek ahalegin handiak egin zituen folkloristek bildu melodia herrikoiez Frantziako mendiko kantuei buruzko Sinfoniaren (Vincent d'Indy, 1886), Euskal Suitearen (Charles Bordes, 1887) eta Euskal Preludioen (Aita Donostia, 1918) elikatzeko. Arrunt beste arlo batean, Christian Boltanskiren hainbat lan heldu zaizkigu gogora: *Archives du Cœur* (Bihotzeko Artxiboak), *La Vie impossible* (Ezinezko Bizia) edota *Kaddish*. Herbeheretako *Capturing Unstable Media* proiektuak sortu baliabide numerikoak ere aipagarriak dira, baita MoMa, SFMoMa eta Tate museoek sortu *Matters In Media Art* dinamika ere<sup>8</sup>. Beste hainbat eta hainbat ekimen ere dokumentu-funtsetan oinarrituz sorkuntza-desmartzak pizten saiatzen dira: New Yorkeko International Center of Photography, Montrealeko Daniel Langlois fundazioa, Parisko INA... Azkenik, gogoan ditugu Patricio Guzmán zuzendariaren dokumentalak, eta horien artean, Patagoniako indigenen eta Txileko preso politikoen ahotsak azaleratzen dituen *El Botón de nácar* (Nakarrezko botoia) goi-obra (2015). Artxibo-lanak elikatu eleberririk ere bada: Umberto Ecoen *Larrosaren izena*, Marguerite Yourcenarren *Le Labyrinthe du Monde* (Munduko labirintoa) lanaren bi tomoak, Pascal Quignar, San Paulori buruzko ikerketa guzietan aipatzen den Emmanuel Carrèreren *Le Royaume* (Erreinua) edota gorago aipatu dugun Marie Cosnay-ren *Comètes et Perdrix* (Kometak eta Eperrak).

Euskal sorkuntza ere dinamika horretan sartua da, eta artxibo zentroek – Baionako mediateka eta haren Bilketa ataria, departamenduko artxiboak, Euskal Museoko eta Bonnat Museoko artxiboak, Euskal kultur erakundearenak, Eleketaren bitartez – beren baliabideak mobilizatzen dituzten sorkuntza artistikoak bultzatzen dituzte, baita artxibotzat jotzen ez diren osagaiak baliatzen dituztenak ere; hots, paisaia, giroak, erran ezin direnak, eta irakatsi ez, gorputzean barneratzen diren dantza urratsak.

Kolokioa 2021eko ekainaren 17an eta 18an iraganen da, Baionako Euskal Museoan bertan, osagarri arauk ezarri hertsaduren araberako mugetan, eta telematikoan segitzen ahalko da, Zoom aplikazioaren bidez.

Denis Laborde, antropologoa  
CNRSko Ikerketen Zuzendaria  
EHESS Ikasketen Zuzendaria  
Baionako ARI-CNRS institutua

Terexa Lekumberri, etnologoa  
Euskal Etnopoloaren koordinatzailea  
Uztaritzeko Euskal kultur erakundea

---

<sup>8</sup> <https://mattersinmediaart.org/>